



EBAZPENA, INGURUMEN JASANGARRITASUNEN SAILBURUORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA 2023KO ABENDUAREN 27KO EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ EBATZI BAITZEN, 2023KO EKITALDIRAKO, URRIAREN 27KO 202/2015 DEKRETUAN ARAUTUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA (DEKRETU HORREK INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK ENPRESEI EMATEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITU).

EGITATEAK

1. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzetarako deialdia egin zen 2023ko ekitaldirako.

2. 2023ko urriaren 27an, 2023ko ekainaren 21eko Aginduan araututako Balorazio Epaimahaia bildu zen aurkeztutako dirulaguntza eskaerak baloratzeko, urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, bileraren akta egin zen, eta, horren bidez, enpresei 2023ko deialdian ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak ematea proposatzen zen. Horrez gain, ezetsi behar ziren laguntza-eskaerak zehazten ziren.

3. 2023ko azaroaren 29an, Balorazio Epaimahaia berriro bildu zen sei espediente zehatzen egoera baloratzeko, eta, ondorioz, aktaren gehigarri bat egin zen.

4. Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduan jasotako dirulaguntzen deialdia ebatzi zen (Agindu horren bidez, enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko baldintzak arautu ziren, 2023ko ekitaldirako). Ebazpenaren I. eta III. eranskinetan jasotzen dira dirulaguntzen erakunde onuradunak, diruz lagundutako proiektuak eta emandako zenbatekoak, bai prozedura arrutaren esparruan, bai prozedura erraztuaren esparruan.

5. 2024ko otsailaren 2an, MECANIZADOS TAME, S.A.L. enpresak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren aurka, zeinaren bidez ebatzi baitzen ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak emateko 2023ko deialdia. Laburbilduz, errekurtsogileak adierazten zuen, 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren 2. artikulua f.1. atalean oinarrituta, dirulaguntza eman zuen organoak kontuan hartu behar zuela, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko inbertsio garbi gisa, dirulaguntzaren eskaeran adierazitako aurretiazko aholkularitza-kostuei eta egiaztapen-erakundearen kostuei dagokien zenbateko osoa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko maiatzaren 31ko Aginduaren bidez, baietsi zen MECANIZADOS TAME, S.A.L. enpresak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa.

6. Gainera, UGARTEBURU, S.A. enpresak 028-PROT-2023 espedientearen esparruan aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuaren 16. artikuluan araututako Balorazio Epaimahaia ohartarazi du diruz lagundutako proiektua ("Ebaketa-olioz bustitako letoizko txirbila zentrifugatzeko lerro bat instalatzea") gauzatzeko enpresak eskabidean adierazitako inbertsio garbiaren zenbatekoa ez datorrela bat espediente horretarako 2023ko urriaren 27ko Aktaren I. eranskinean ("PROZEDURA ARRUNTEAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK") ezarritako zenbatekoarekin. Akta horren bidez, enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak ematea proposatu zen 2023ko deialdian.

Akatsa ikusita, 2024ko maiatzaren 9an, Balorazio Epaimahaia aktaren bigarren gehigarri bat onartu zuen, 028-PROT-2023 espedientearen esparruan diruz lagundutako proiektua gauzatzeko





I. eranskinean ("PROZEDURA ARRUNTEAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK") ezarritako inbertsio garbiaren zenbatekoa zuzentzeko eta, ondorioz, UGARTEBURU, S.A. enpresari 028-PROT-2023 espedientean eman beharreko dirulaguntzaren proposamen berri bat egiteko.

Aurreko gertakariari honako hauek aplikatu behar zaizkie:

ZUZENBIDE OINARRIAK

1. Alde batetik, kontuan hartuta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Agindua, MECANIZADOS TAME, S.A.L. enpresak jarritako gora jotzeko errekurtsioa baiesten zuena, aldatu egin behar da Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren III. eranskina, zeinaren bidez ebatzi baitzen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduan jasotako ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzen deialdia, inbertsio garbiaren zenbatekoa eta, beraz, 014-PROTS-2023 espedientearen esparruan enpresa horri emandako dirulaguntzaren zenbatekoa behar bezala jartzeko.

2. Beste alde batetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua araber, "*Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak*".

Horrelako akatsa ikusita UGARTEBURU, S.A. enpresaren 028-PROT-2023 espedientean, eta Balorazio Epaimahaiak sinatutako Aktaren bigarren gehigarria kontuan hartuta, bidezkoa da, halaber, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren I. eranskina aldatzea, behar bezala jasotzeko 028-PROT-2023 espedientearen esparruan diruz lagundutako proiektua gauzatzeko inbertsio garbiaren zenbatekoa eta, ondorioz, eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.

3. Horrenbestez, UGARTEBURU, S.A. enpresari 028-PROT-2023 espedientearen esparruan eta MECANIZADOS TAME, S.L. enpresari 014-PROTS-2023 espedientearen esparruan, 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren I. eranskinean ("PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK") eta III. Eranskinean ("PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK") kontuan hartutako inbertsio garbiaren kopuruak eta, ondorioz, emandako dirulaguntzaren kopuruak, ez dira zuzenak, eta aldatu egin behar dira ebazpen honen lehenengo eta bigarren ebaztietan adierazitako moduan.

4. Organo honi dagokio ebazpen hau emateko eskumena, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko dirulaguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

IKUSITA aurrekariak eta azaldutako arrazoibide juridikoen oinarri den araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak ematea arautzen duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduan jasotako dirulaguntzen deialdia ebatzi zuen Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren I. eranskina ("PROZEDURA ARRUNTAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK") aldatzea. Hona hemen aldaketak:

Honako hau esaten den lekuan:

Espediente zk.	Titular eskatzailea	Enpresaren tamaina	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Dirulaguntzaren zenbatekoa (€)
028-PROT-2023	UGARTEBURU S.A.	Handia	Ebaketa-olioz bustitako letoizko txirbilaren zentrifugazio-lerro bat instalatzea.	42.090,00	16.836,00



Honako hau esan behar du:

Espediente zk.	Titular eskatzailea	Enpresaren tamaina	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Diru-laguntzaren zenbatekoa (€)
028-PROT-2023	UGARTEBURU S.A.	Handia	Ebaketa-olioz bustitako letoizko txirbilaren zentrifugazio-lerro bat instalatzea.	54.000,00	21.600,00

Bigarrena.- Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei dirulaguntzak ematea arautzen duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduan jasotako dirulaguntzen deialdia ebatzi zuen Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen 2023ko abenduaren 27ko Ebazpenaren III. eranskina ("PROZEDURA ERRAZTUAREN BARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK") aldatzea. Hona hemen aldaketak:

Honako hau esaten den lekuan:

Espediente zk.	Titular eskatzailea	Enpresaren tamaina	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Diru-laguntzaren zenbatekoa (€)
014-PROTS-2023	MECANIZADOS TAME SAL	Txikia	EMAS erregistrarako dokumentazioa prestatzea	4.020,00	2.010,00

Honako hau esan behar du:

Espediente zk.	Titular eskatzailea	Enpresaren tamaina	Proiektua	Inbertsio garbia (€)	Diru-laguntzaren zenbatekoa (€)
014-PROTS-2023	MECANIZADOS TAME SAL	Txikia	EMAS erregistrarako dokumentazioa prestatzea	14.020,00	6.000,00

Hirugarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. Artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

Izpta.: AITOR ALDASORO ITURBE
(Elektronikoki sinatuta)